

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3254

EBAZPENA, 2017ko ekainaren 9koa, Kulturako sailburuordearena, musika-jarduera profesionaletarako, diru-laguntzak emateko Balorazio Batzordearen batzarkideak izendatzen dituen eta Batzordearen osaera argitaratzen duena.

Ikusi da Kultura Musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko araubidea ezarzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko maiatzaren 3ko Agindua.

Kontuan izan da agindu horren 10. artikulua aipaturiko diru-laguntzak emateko Balorazio Batzorde batek ebazpen-proposamena egingo duela eta Batzorde horren kideak izendatzea eta osaeraren argitaratzea Kulturako sailburuordearen ebazpen bidez emango direla jasotzen duela.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta bere osaera argitaratzea. Beraz, honako kide hauek izango dira Batzordean:

Batzordeburua: Kultura Sustatzeko zuzendaria izango da, edo horrek izendatutako pertsona.

Idazkaria: Imanol Arana Ariz (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikaria).

Batzarkideak:

a) Musika partituren edizioa: Jon Bagües Erriondo; Itziar Larrinaga Cuadra; Jose Manuel Tife Iparragirre. Ordezkoa: Aintzane Camara Izagirre.

b) Musika proiektu unitarioak: Cesar Ibarretxe Azkueta; Pedro María Leinena Mendizabal; Mari Jose Oria Eraso; Ixiar Uria Aramburu. Ordezkoa: Myriam García Etxaniz.

c) Musika-ekimen enpresarialak: Jon Bagües Erriondo; Aintzane Camara Izagirre; Patricio Goyalde Palacios. Ordezkoa: Ixiar Uria Aramburu.

d) Musika-programazioa: Myriam García Etxaniz; Xabier Sagardia Sarasa; Arkaitz Villar Baños. Ordezkoa: M.^a Jose Oria.

Bigarrena.– Honako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 9a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.